




Euskal ekonomiaren termometroa 102,7an kokatu da

Euskal ekonomiaren termometroa
Indizea




Iturria: Ekonomia Zuzendaritza

Abuztuan, EAEko ekonomiaren termometroa 102,7ra igo zen, urteko mailarik altuenera, eta hazkunde solidoko eremuan kokatu zen. Kontsumoak sendo jarraitzen du, eta inbertsioak ere aurrera egin du, batez ere ekipamendu eta eraikuntza ondasunetan. Kanpo-sektoreak ziurgabetasun globalaren eraginpean jarraitzen du. Eskaintzaren ikuspegitik, zerbitzuak nabarmentzen dira industriaren ahultasunaren aurrean

Industria produkzioa % 0,3 hazi zen Euskadin

Industria produkzioaren indizea (IPI)
Urte bakoitzeko uztaila.



Iturria: Eustat.


Euskal industria produkzioa %0,3 hazi zen uztailan aurreko urteko hil beraren aldean. Gehikuntza hori kontsumorako ondasunek eta ekipamendurako ondasunek eragin zuten, % 2,2 eta % 1,9 hazi baitziren, hurrenez hurren. Aitzitik, energiaren ekoizpena %4,6 murriztu zen.



Enpresen sorrera hazi egin zen uztaila arte

EAEn eratutako enpresak

Urte bakoitzeko urtarriletik uztailera bitartean




Iturria: Eustat.

INEk argitaratu duenez, **2025eko uztaila arte, 2.366 enpresa eratu ziren EAEn, iazko aldi berean baino %13 gehiago**. 2012tik urtarriletik uztailera erregistratutako kopururik handiena da, eta 2023an hasitako goranzko joera sendotzen jarraitzen du. Ordaindutako kapitala 144 milioi eurotik gorakoa izan zen.

EAEko inflazioa %2,8ra beheratu zen abuztuan

Kontsumoko prezioen indizea (KPI)

Urte arteko aldakuntza tasa



Iturria: INE

Kontsumoko prezioen indizea %2,8koa izan zen abuztuan, iazko hilabete beraren aldean. Horrek esan nahi du aurreko hilabetearekin alderatuta bi hamarren jaitsi dela, elikagaien, etxebizitzaren, uraren, elektrizitatearen, gasaren eta beste erregai batzuen eusteari esker, eta garraioak gora egin duen arren. Azpiko inflazioa egonkor mantendu zen %2,5ean urte arteko tasetan.